

{ datorrena } Maite UBIRIA BEAUMONT

Auzoetako errebolta eta Bastillaren Hartzea

Bastillako kartzelak hautsi zituen matxi-
noen erregeak, azalpenik eman gabe,
edonor presondegiratu zezakeela sala-
tzeko asmoz. Erregimen zaharraren
ezaugarri nagusia zen mugarik gabeko
diskrezionalitatea jomugan ezarri zuen
jende txiroaren altxamenduena. Egutegiak badi-
tu kapritxoak. Auzo langileetako nerabe bat, Nahel M., ti-
roz hil zuen Poliziak, “Askatasuna, Berdintasuna,
Anaitasuna” goiburu duen frantziar Errepublikak Bas-
tillaren suntsiketa ardatz hartzen duen aberriaren os-
pakizuna baino aste batzuk lehenago.

Egungo Bastilla guztiak aintzat hartuta, joan zen
ekainaren 30ean eginiko azkeneko neurketaren ara-
bera, 73.699 herritar ziren frantses Estatuan giltzape-
turik. Hexagonoko espe-
txeek duten gaitasunetik
at, 16.000 pertsona ziren
gatibu. Kartzela sistemaren
dentsitate maila %121,7koa
da, 2020an Europako Giza
Eskubideen Auzitegiak zi-
gortu zuen herrialdean.
Lehorteari aurre egiteko ur
kontsumoaren murrizke-
tak eta beroteari loturiko
osasun arriskuak ekiditeko
egitasmoak aurkeztu berri
dituen Gobernuak, hotz ala
bero egin, ez du plan berezirik kartzela populazioaren
etengabeko gorakadak dakarren berezko lanjerari
erantzun bat emateko.

Frantses Barne Ministerioak eskaini zuen bilanaren
arabera, 3.700 herritar, horietatik 1.160 adingabe, atxi-
lotu zituen Poliziak Nanterreko gaztearen heriotzak
piztu zuen haserre eztandak iraun zuen sei gau ho-
rien ondotik. Segurantzaren etxeak, berriz, 650 milioitan
zenbatu dituzte errebolta utzitako kalte materialak.
Herriak hautsi zuen Bastillako pasadizoa ardatz duen
aberiaren gorazarreari ekin aitzin, epaiketa azkarrak
eta zigor eredugarriak promestu zituen Emmanuel
Macronen Gobernuak, eta geroztik, espetzeak are

gehiago betetzeko makinak atsedetik hartu gabe la-
nean jarraitzen du frantses Estatuan.

Izan ere, auzo langileetan txingarrek pizturik jarrai-
tzen dute, uztailaren 14ko dantzaldi eta suzirik argaz-
ki distiratsua goa irudikatzeko balio duten arren. Az-
keneko hamarkadetan, sustrai sakonak dituen auzoen
krisiak Hexagonoan garatu den ezabatze demokrati-
koaren prozesuarekin bat egin du, nahiz eta inozo sa-
marra dirudien, arrakalak ikusita, ezinegonen batuke-
ta orokorraren atarian gaudela pentsatzeak.

Beldurra sentitzeko eta sorrarazteko logikaren ara-
bera jokutzen da partida gaur-gaurkoz. Eztandaren
ondorioz nork irabaziko duen eta nork galduko duen,
hori da eztabaida, enpresetako administrazio kontsei-
luek jitea hartu duen politikaren eremuan.

Macronek bultzaturiko lege sekurokratak
eta eredu soziala ahultzeko erreformak
babestu dituen LR alderdiak Nanterreko
krisia baliatu du eskuin-muturrengandik
bereizten duen muga gehiago lausotzeko

Kontsumorako pultsioa kosta ahala kosta asetzera
gonbidatzen duten saltokiak zein arrazializatutako
herritarrak alboratzen dituen sistema politikoa orde-
katzen duten eraikin publikoak sutan ikusi eta aste
batzuetara, begirada taulategi politikoa ezarri da.

Lege sekurokratak, erretreta, langabeziari buruzko
erreformak eta aldaketa klimatikoaren aurrean eran-
tzunak gibelatzeko Macronek sustatu dituen egitas-
mo gehienak babestu dituen Errepublikanoak (LR) al-
derdiak, istiluen itzalpean, zalantza beteriko
maniobra beldurgarria eman du abian; ideiak barne-
ratzeaz haratago, eskuin-muturraren corpusarekin
eremu bateragarriaren bila dabilta. •